

## **Itunpeko irakaskuntza sindikatuak mobilizaziora deitzen dute patronalei EAEko hitzarmena negoziata dezaten eskatzeko murrizketei uko eginaz**

### **Greba eguna deitzen dute irailaren 26rako eta asteko mobilizazioak urrian eta azaroan**

Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako negoziatzaile mahaian ordezkariak dugun sindikatu guztiok (ELA, CCOO, STEE-EILAS, LAB eta UGT) oso larritzat jotzen ditugu EAEko itunpeko irakaskuntzako patronalek 2010eko maiatzetik aurrera hartu dituzten erabakiak.

Gogora arazi behar dugu Eusko Jaurlaritzak kontzertazio moduluak murrizteko erabakiaren aurrean, itunpeko irakaskuntzako patronalek murrizketa hauen zama nagusia sektoreko langileen bizkar jartzea erabaki zutela, inolako elkarrizketa eta negoziatzaile izan gabe eta soldatak murriztuz.

Auzitegiek instantzia gorenetan langileen ordezkariak arrazoia eman digutenean ere, patronalek bata besteari atzetik etorri diren epaiak betetzeari uko egin diete behin eta berriro, oraindik ere 2013an zor dituzten kopuruekin gertatzen den moduan.

2010az geroztik ezartzen ari diren baina ekintza sindikalak eta epaiak eragozten dizkieten murrizketak legeztatuta asmoz, bai Kristau Eskolak baita IZEA ere, EAEko hitzarmenaren negoziatzaile mahaia bertan behera uztea erabaki zuten eta estatuko hitzarmena ezartzeko bere asmoa agertu (VI Convenio de Colectivo de Empresas de Enseñanza Privada sostenidas total o parcialmente con fondos públicos). Erabaki hau epaitegien aurrean salatua izan da eta epaiaren zain gaude.

Ezarritako gatazka kolektiboak izan dezakeen ibilbidetik aparte ordea, sektorean ordezkariak dugun sindikatu guztiok oso larritzat jotzen dugu patronalak Auzitegi Gorenen aurreko epaiak betetzeko asmorik ez izatea, murrizketak inposatzen jarraitzea eta oraindik ere zor dituzten soldatak ordaintzeari uko egitea. Hau honela ordea, are larriagozat jotzen dugu negoziatzaile mahaia bertan behera utzi izana eta EAEko hitzarmen berri bat helburu duen negoziatzaile berriro ekiteko inolako asmorik ez izatea.

Egoera honen aurrean, **sektoreko sindikatu guztiok langileei mobilizaziora dei egiten diegu Kristau Eskola eta IZEA patronalei, murrizketak alde batera utzi eta EAEko hitzarmenaren negoziatzaileari ekin diezaiotela eskatzeko, inolako murrizketa planteamendurik gabe eta beharrezko diren aplikazio bermeekin**. Modu berean, sortu den egoera larriaren ardura zuzena duela uste dugulako eta egoerak honek ia hezkuntza sistemaren erdiari eragiten diolako, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu bitartekaritza lana egin eta gatazka honi konponbidea aurkitu eta hezkuntza sistemari eta langileen egoerari egonkortasuna emango dion irteera bidea aurki dezala.

Honegatik guztiagatik, **mobilizazio jarraituak planteatzen ditugu hurrengo hilabeteetan, greba egun, lanuzte, manifestazio, elkarretaratze, etab. deituz**. Lehenengo erreferentzia datorren irailaren 26an izango da sektore osorako greba eguna deitzen dugularik. Deialdi honek jarraipena izango du urriaren 21etik 25erako astean lanuzteak, manifestazioak eta elkarretaratzeak deituko ditugularik. Eta gure aldarrikapenek erantzunak izan ezean beste mobilizazio astea deituko dugu azaroaren 25etik 29ra, ikastetxe bakoitzean egin daitezken ekimenei ate irekiak utziz eta adierazitako datetatik aurrera mobilizazioei jarraipena emateko aukera irekiz.